

KANTI KOMENTARIOAK

1.- Erabaki dut Kanten “Arrazoi garbiaren kritikari”, nik aukeratutako fragmentu batzuei, halako komentario bezalakoak egitea. Eduki dut esku artean euskarazko itzulpen bat baina nefastoa iruditu zait eta pentsatu dut gaztelaniazko testu bate-tik hartzea parrafoak, gero komentatzeko poliki poliki. Eta aukeratu dudan lehen parrafoa liburuaren hasieran dago, hara hemen:

“La experiencia es, sin duda alguna, el primer fruto que nuestro entendimiento obtiene elaborando la materia bruta de las sensaciones. Que es precisamente lo que hace de ella la primera enseñanza y, además, que sea de tal modo inagotable, en su desarrollo, en nuevas instrucciones que, en la larga cadena de las edades las generaciones futuras jamás carecerán, en este terreno de conocimientos nuevos que adquirir. Ello no quiere decir, ni mucho menos, que sea el único campo en el que se ejercita nuestro entendimiento, ni que en él se deje encerrar. Nos dice, sí, lo que ocurre, pero no lo que deba ocurrir de un modo necesario, o sea, así y no de otro modo. No nos da, a causa de ello mismo, ninguna verdadera universalidad, y la razón tan ávida de conocimientos de esta especie queda más excitada que satisfecha. Ahora bien, aquellos conocimientos universales que presentan al mismo tiempo el carácter de la necesidad intrínseca, deben, independientemente de la experiencia, ser claros y ciertos por sí mismos,

que es lo que son llamados conocimientos a priori, mientras que lo que, por el contrario, lo que es sacado únicamente de la experiencia no es conocido, como se dice, sino a posteriori o empíricamente.”

Parrafo honetan argi geratzen da edozein ikertzaile enpirikok badakiena, hau da, esperientzia materialetik ezinezkoa dela inoiz ezagutza universalik iritsi. Zeren ezagutza enpirikoa a posteriorikoa baita, eta horrela, dio Kantek, gure entendimendua exitatuago geratzen da aurrera jo ahala lasaitua baino.

Kantek, hala ere, badu hasten insinuatzen bere ezagutzaren teoria, eta hitz egiten du ezagutza unibersalez, zeintzu baitira, esperientzia orotik gain, a prioristikoak. Ezagutza universal horiek izango dira, Kanten ezagutzaren teorian, ezagutza enpirikoa posible egiten dutenak.

2.- Jarraian datorren parrafoan adierazten du filosofoak zer eta zertarako diratekeen ezagutza a prioristiko horiek. Hone-la dio:

“Por ello se ve – y es preciso notarlo bien – que, incluso a nuestras experiencias, se mezclan conocimientos que deben tener un origen a priori y que quizá sirven tan sólo para suministrar una unión a las representaciones de los sentidos. Pues, si se elimina de los primeros todo cuanto pertenece a los sentidos, quedan, sin embargo, ciertos conceptos primitivos y ciertos juicios, que estos conceptos producen y que deben ser formados enteramente a priori, independientemente de la experiencia, puesto que es gracias a ellos como se tiene el derecho – o al menos se cree tener – de decir de los objetos que aparecen a nuestros sentidos, más de lo que acerca de ellos no enseñaría la simple experiencia, y puesto que es mediante ellos como las aserciones encierran una verdadera universalidad y una necesidad estricta, caracteres que el conocimiento simplemente empírico es incapaz de suministrar.”

Garbi lagatzen du filosofoak ezen ezagutza a prioristikoak ezinezkoak direla esperientzia materialetik, nahiz eta horiek izan esperientzia hori posible egiten dutenak. Eta hor insunua-

tzen hasita dago bere ezagutzaren teoria. Nonbait badago ezagutza a prioristiko bat zeinak posible egiten duen guk mundu materiala ezagutu dezagun, ezagutza hori a posteriorikoa den arren, enpirikoa, eta sekula ezin den arren bide horretatik unibertsaltasunik iritsi.

3.- Baina jarraian datorren parrafoan insinuatua duen bere ezagutzaren teoria, denok ezagutua eta osagarria dena eskolas-tikan Aristoteles komentatzen garatu zenarekin, nonbait alde bat uzten du beste baterako, aurreragorako, eta honela hasten da idazten:

“Pero hay una cosa mucho más significativa (que todo cuanto precede), y es que ciertos conocimientos salen incluso del campo de todas las experiencias posibles, y mediante conceptos, a los cuales la experiencia no puede en parte alguna dar el objeto correspondiente, tiene la apariencia de extender nuestros juicios más allá de los límites de la experiencia.

Y es precisamente en estos conocimientos elevados, por encima del mundo sensible y donde la experiencia no puede ya servir más de de dirección que de comprobación, donde nuestra razón dirige sus averiguaciones, averiguaciones que juzgamos preferibles con mucho, desde el punto de vista de su importancia, y también superiores en mucho en cuanto a su fin, a todo cuanto el entendimiento puede aprender en el campo de los fenómenos. Por este motivo, incluso a riesgo de equivocarnos, lo intentamos todo antes que abandonar averiguaciones tan importantes, sea cual sea el motivo, dificultad, o desprecio e indiferencia. (Estos inevitables problemas de la razón pura misma son Dios, la libertad y la inmortalidad, y la ciencia que, con todos sus procedimientos, no tiene, en realidad, como propósito final, otro distinto de la solución de estos problemas, se llama la Metafísica. Su método, al principio, es dogmático, es decir que, sin examinar previamente lo que puede servirla o no en tan gran empresa, se lanza con seguridad a su ejecución).”

Ezagutza experimental ororen gain dauden ezagutzak, aurretik ikasi dugun bezala, ezagutza a prioristikoak dira, ezagu-

tza universalak zeintzuek posible egiten duten gure mundu materialaren perzepzioa eta ezagutzea, zeina enpirikoa denez sekula ez den iristen universaltasunera.

Baina azken parrafo honetan Kantek ezagutza a prioristikoaz dihardu, ezagutza universalaz, zeina baitago esperientzia material ororen gain, eta halako ezagutza sobrenaturalaz (esperientzia material ororen gain dagoena sobrenaturala baita) diharduen zientzia dio metafisika dela, eta Jainkoaz, askatasunaz eta ezhilkortasunaz aritzen da. Halako ezagutza askogatik da inportantegago ezagutza enpirikoak baino, baina bere metodo lehena dogmatikoa da, eta Kantek examinatu nahi ditu dogma horiek zeintzuek examen barik ezarriak baitira, dio, eta behar dute, halakoa baita ikerketa honen garrantzia, ondo aztertutak izatea. Euren zimentarriak ondo ezarriak diren konprobatzea.

Dogma horietako bat izan daiteke, adibidez, platonismoaren ideia (forma grekeraz) inmutableen mundu sobrenaturala.

4.- Hitzaurre honetan argi lagatzen du Kantek bere lanaren nondik norakoak, eta argiago ikusteko hemen dugu jarraian datorrenaren parte bat:

“Ahora bien, parece sin duda natural que no se entre, apenas se ha abandonado el terreno de la experiencia, en la tarea, al punto, de emprender a favor de los conocimientos que se poseen sin saber cómo, y concediendo crédito a principios, cuyo origen se ignora, la construcción de un edificio, sin haberse asegurado previamente, a favor de averiguaciones hechas con cuidado, de la solidez de sus cimientos, y sin haber, por consiguiente (y es esencial), desde mucho antes, removido la cuestión relativa a saber cómo el entendimiento puede adquirir con buen derecho todos estos conocimientos a priori y qué especie de extensión, de valor, de precio, pueden tener...”

Hemen Kantek bere aurreko metafisika dudan eta zalantzan jartzen du. Aristotelesek Platonen ezagutzaren teoria ordenatu

egiten du, baina Platonen ideien mundu hura nondik aterea da?, ezinezko delako igarotzea den mundu materialeko objektuak definitu behar den moduan zientzia egin ahal izateko?, hau da, ezinezkoa delako objektu material baten definizio universalik burutu?. Eta horregatik mundu material hau intelijible egin dakigun beste mundu bat asmatu behar dugu?. Baina ez dago, eta Kantek arrazoa du, beste mundu ideal horren demostrazio posiblerik, eta zientzia materialista egiterik badago, zeren objektu materialak baitaitezke definituak izan formalki, hau da, bada posible objektu materialen definizio universalak egitea, definizio horiek objektu horien materiatasuna abstraituz lortzen badira ere, eta horrela gure zientzia sekula ez da iristen universaltasunera, hau da, kosmos materialaren ezagutza universalera. Eta hori berori dio Kantek behin eta berriro, gure ezagutza enpirikoa a posteriorikoa dela. Eta ezagutza a prioristikoa, esperientzia material ororen gain dagoena, da estudiatu nahi duena, zeren halako ezagutza baita metafisikaren zimentarria.

Arrazoi sendoak nahi ditu bilatu gure filosofoak. Eta eskolastikan emandakoak ez ditu ikasten oinarri sendo bezala, demostrazioak falta dituzte, demostrazio sendoak eta solidoak. Eta ondo egiten du bere edifizioa harriaren gainean jarri nahi duenean eta ez hondartzaren gainean. Eta harria da ondorio erlazio egiazkoa, logikaren filosofian esaten den moduan.

5.- Nik sarritan pentsatu izan dut ezen Grezian bazela ezaguna errevelazioaren historia, herri judioaren berri bazutela, herri filosofikoa deitua izan dena, baina izkutatu egin zuten hori, originalak izateagatik seguru, eta hortik dator Platonen mundu ideala eta Aristotelesen haren filosofiaren ordenatze harrigarria, gero eskolastikan hain erraz erlijio monoteistara egokitua izango dena. Hori egia izan daiteke, baina egia ere bada Kantek “metafisika klasiko” horri egiten dion erreprotxea, hau da, zimentarriak halako filosofiak erakitzeko ez zeudela bere funtsean ondo jarriak. Agian originalak izan nahi zutelako

eta onartzen ez zutelako bazutela ezagutzen Orienteko historia, herri judioarena bereziki. Nola bestela izan daiteke orientalista handiak zirenak ez ezagutzea Oriente harrigarri hartakoa?. Moisesen historia eta hola?, eta baita Moisesenaren ostean faraoi harena zeina ahalegindu baitzen erlijio monoteista ezartzen Ejipton baina huts egin zuen?.

6.- Niretzat eskolastikan garatu zen filosofia nagusiak platonismoak duen falazia baten gainean eraikia da. Eta falazia hori da ezin demostratu daitekeela, mundu materialaz zientzia egin ahal izateko, beste mundu sobrenatural bat denik, forma immutableena. Zientzia badago egiterik teoria hori desarroilatu gabe, eta ezagutzaren teoria aristotelikoa da ia ia, forma materialen definizio universalak egiten baititu bere hastapeneko oinarrietan, definizio formalak direnak, baina ahaztu gabe forma horiek materialak direla, mutableak beraz, abstraitua dagoela materiatasuna forma horien definizio basikoa egiterakoan, eta jakinik zientzia enpiriko hori sekula ez dela, horregatik hain zuzen ere, universaltasunera iristen, kosmos materialaren ezagutza a prioristikoa izango litzatekeena. Materiaren ezagutza universalak. Zeina misterio egiten baita beti kosmos honetan. Seinale ezen izatekotan ez dela kosmos honetan gertatzen, eta bai metafisikaren zientziaren gai den beste kosmos goragoko batean.

Roman Garmendia